

ERASOA ESTATU BATUEN AURKA

HASIERA

New Yorken 08:48 zirenean gertatu zen lehen Dorre Bikiaren eraso; bestea 18 minutu geroago suntsitu zen

PENTAGONOA

Munduko boteregune garrantzitsuenetakoan beste hegazkin batek talka egin eta Pittsburgren beste aireko bat erori zen

LANGILEAK

Dorre Bikietan 50.000 lagunek egiten dute beharra, eta jazoeren unean jendez beteta zeuden



DOUG KANTER / EPA

ERAIKINAK TXIKITUTA. Dorre Bikiak erori ondoren, eraikinaren hondakinez josita gelditu ziren inguruko kaleak.0



CHAO SOI CHEONG / AP

MERKATARITZA GUNEA SU HARTZEN. Hemezortzi minutuko aldearekin hartu zuten su atzo, goizean goiz, World Trade Center merkataritza guneko bi dorreek.



STEPHEN JAFFE / EPA

PENTAGONOA ERE KISKALITA. Dorreen erasoak sortutako urdultasun eta nahasmenaren artean, Washingtonen Pentagonoaren eraikina ere suntsitu zutela jakin zen.

(Aurreko orrialdetik dator)

nean ari zirela, berriak gero eta okerragoak ziren. New Yorkeko erasoak gertatu eta gutxira besteak gertatu ziren. Azken horiek ez ziren istripuak. Egoera argia zen. Washington hiriburuan, hegazkin batek Pentagonoaren aurka jo zuen, EEBBetako Gobernu Defentsa Departamentuan, munduko gune babestuenetako batean. Eraikuntza sutan zen milaka langile beren lanpostuetatik ateratzen zituzten bitartean. Etxe Zuria ere hustu egin zuten, baina erasoak ez ziren eten. EEBBetako Estatu Departamentuaren aitzinean bomba-auto batek egin zuen eztanda, 10.35etan, gertu ziren kazetarien arabera. Eta beste hegazkin batek, laugarrenak, lurraren kontra jo zuen Pittsburgetik 150 kilometro he-

ONDORIO POLITIKOAK

Disidenteak diren ahotsentzat kaltea

Erasoaren egiletza zein den jakin gabe ere, ondorioak nabariak dira jada EEBBetako nazioarteko politikan. Erasoak aitzakia izango da EEBBentzat nazioarteko tratatuak hausteko, misil antibalistikoak deusezteko ABM tratatua, adibidez, edo arma biologikoak deusezteko. EEBBen isolaketa politikak kritika asko jasotzen ditu nazioartetik, baina EEBBentzat politika zu-

goaldera. Hegazkinetako hildakoak bakarrik gehituta, ehunka ziren zendutakoak.

Milaka langileren bilgune

New Yorkeko Dorre Bikien erasoak haiek beteen zeuden unean gertatu ziren: enpresetako na-

zena dela erakusten dute halako gertaerek, nahiz eta teoria hori EEBBentzat bakarrik izan sinesgarria mundu osoan.

Komunikabideak EEBBetako hirietara joandako Ekialde Erdiko ekintzaileez mintzatzen hasi dira. Etxetik datorren terrorismo aukera oro (Oklahoman 250 lagun hil zituen bomba eraso izugarria, adibidez) baztertua, ahaztua dagoela dirudi. Amerika ofiziala beldur egoera etengabe bizi da, eta hau ez da berri txarra munduarentzat bakarrik, EEBBetako edozein ahots disidenterentzat ere bai. New Yorketik Los Angelesera.

gusiak, langileak, eta negozioetan zebiltzanak une horretan euren bulegoetara sartzen ari ziren lan jardunaldia hasteko. 50.000 lagunek egiten dute lan normalean Dorre Bikietan, munduko eraikuntza handienetako alor horretan. Dorre Bikiak

munduko altuenetakoak dira, 410 metroko garaiera dute. 1993. urteko otsailaren 26an gertatu zen haien aurkako lehenengo eraso. Sei lagun hil ziren orduan. Egiptoko Omar Abdel Rahman xeikh itsua bizi osorako kartzela zigorrarekin

espetxeratu zuten. Lehergai-luz betetako furgoneta gidatu zuen Ramzi Iusef herrikidea ere espetxean da. Iusefek erasoaren erantzukizuna hartu zuen bere gain, eta palestinaren borrokaren oihartzuna goratzeko zela adierazi.

EEBBetako larrialdi neurri guztiak hartu ziren atzo, erasoaren ondoren. Hegaldi zibiletako arduradunek EEBBetako eta nazioarteko hegaldi guztiak utzi zituzten bertan behera. EEBBetako Gobernu eta beste erakunde publikoen hainbat erakunde eta eraikuntza hustu egin ziren eraso gehiagoren beldurrez. Gaitzespen mezuak ere iritsi ziren, baita iraganean ekintza horiek egin izana onartu zutenen ahotan: Afganistango Talibanak, Saudi Arabiako hiritarrak edota Osama Ben Laden aberatsa.